

# PARTAIDETZA AZTERGAI: NAHI, AHAL, JAKIN

## SOLASALDI ZIKLOA



## JAKIN: PARTAIDETZA-ON

PARTAIDETZA AZTERGAI: NAHI, AHAL, JAKIN. SOLASALDI ZIKLOA hiru saioek osatu dute.

Lehenengo saioa, NAHI, PARTE HARTU ALA EZ PARTE HARTU, HORI DA GAKOA Azpeitiko San Agustinen ospatu da urtarrilaren 26an. Partaidetzan konfiantza eta konfiantza-eza sortzen duten gakoak azaleratu eta norberaren esperientziaren eremutik hitz eginez horietan sakontzea izan du helburu lehen saioak.

Bigarren saioa, AHAL, PARTE HARTU NAHIA ETA EZINA, Donostiako Miramar jauregian ospatu da otsailaren 25ean. Saio honen helburua parte hartu ahal izateko baldintzetan, egiturazkoak zein pizgarrietan, arakatzea izan da.

Azkenik, hirugarren saioa, JAKIN: PARTAIDETZA-ON izenburukoa martxoaren 24ean ospatu da Donostiako Okendo Kultur etxean. Saio honek Partaidetza digitalak eskaintzen dituen aukera eta mugetan arakatzea izan du helburu.

## JARDUNALDIA

MEMORIA (2023/03/24. OKENDO KULTUR ETXEA, DONOSTIA)

### EGITARAUA

10.00 – 10.15	Harrera
10.15 – 10.35	Aurkezpena. JAKIN. Partaidetza digitala eta komunitatea
10.35 – 11.05	JAKIN, <i>partaidetza digitala aztergai: aukerak eta esperientziak</i> . Mahai-ingurua. Xabier Murua eta Erika Jaraiz
11.05 – 11.30	Solasaldia
11.30 – 11.45	Atsedenaldia
11.45 – 12.05	JAKIN, <i>tresna digitalak: komunitatea sortzen eta sendotzen</i> . Ponentzia. Santi Pisonero
12.05 – 12.45	Solasaldia
12.45 – 13.05	Plenarioa. Errelatoria hitz batean eta irudi batean
3.05 – 13.15	Itxiera

## AURKEZPENA

---

GFAko Herri Partaidetza Zuzendariak, Mikel Pagolak, ongietorria eman, Euskal Herriko Unibertsitateko Uda Ikastaroak fundazioaren (UIK) elkarlana eskertu eta ekimen honen testuinguru eta helburuak azaldu ditu. Partaidetza aukera, baldintza, eskubide eta betebeharreran eragin duten eta eragiten ari diren gakoien inguruko solasaldi ireki eta publikoak dira antolatutako hiru saioak. Helburu nagusia da «gaur egungo errealitatean eta Gipuzkoako testuinguru zehatzean partaidetza eragiten ari diren gakoetan elkarrekin pentsatzen eta hausnartzen jartzea, ahalik eta modu barneratzaileenean». Norabide horretan partaidetza esku hartzen duten aktore ezberdinen kezka eta ekarpenak jaso nahi dira, eta hutsuneetan eragiteko gomendio, ideia eta egitasmoak sortu. Mikel Pagolak hiru saioen partaidetza datuak konpartitu ditu bere hitzartzean: guztira 200tik gora pertsonak hartu dute parte hiru saioen baturan, partaideen % 70a emakumezkoak izan dira, ikasketa maila altukoak eta nagusitu den adin tartea 35-54 urteen inguruan kokatu da. (*Ikus Eranskina 1.*)

Ondoren Maider Kortajarenak, UIKen izenean ere hitza hartu eta lankidetzaren garrantzia azpimarratu eta jardunaldien zein hauek landutako gaiaren interesean sakondu du. Fundaziotik bultzatzen diren ikastaroetan parte hartzea eskaera bat bihurtzen ari dela aipatu du eta esperientzia honek urratu beharreko bidean duen balioa azaldu du.

Bukatzeko, Adriana Martinezek hartu du hitza Gizarte Kontseiluaren izenean. Jardunaldiaren helburuak eta landu diren edukiak azaldu ditu. Partaidetza digitala jada errealitate bat da. Partehartzeak geruza digital bat badu. Geruza honen pean badira hain bat elementu:


- Prozesu partehartzaileak sustatzen dituztenen jakintza digitala. Zer partehartze kultura sustatzen da. Zer irabazi eta galtzen den parte hartzeko modu tradizionalen aldean. Zer nolako kanalak eta prozesuak ezagutzen dira.
- Parte hartzen dutenen jakintza edo ezagutza (zer ulertzen duten, zer espektatiba dituzten...).
- Bideak. Kanal berri hauetan ere jakin (informazioaren kalitatea, sesgoak, emaitzen interpretazioa...). Partehartze demokratiko eta kalitatezko baten indikatzaileak kanal digitaletan.
- Komunitate sareak. Zein bide eta zertan lagundu dezakete erraminta digitalek komunitatea sortzen eta sendotzen.

Bi lan ardatz izan ditu saioak, biak erraminta digitalek zeharkatuta, baina goizaren lehen partean *parte hartzea* izan bada ardatz, bigarren partean *parte izan* ideia izan da esploratu dena.




Jardunaldiaren edukiei eutsi aurretik girotze dinamika bat egin da multzokatze ariketa baten bitartez. Ondoren, bi galdera erantzun dira Menti erraminta probatu eta bi galdera erantzun dira banaka. Jardunaldiaren hirugarren saio honetan lehen aldiz parte hartu zitekeen online, eta aurrez-aurre zein online jarraitzen zutenen parte hartzea uztartzea erronka bat izan da.

## Parte hartzeak aurrez aurre egotea eskatzen du / La participación exige presencia física



## herritar gehiagorengana iristea eta aniztasun handiagoa bermatzen dute / Permiten llegar a más personas y alcanzar mayor diversidad



## MAHAI-INGURUA. PARTAIDETZA DIGITALA AZTERGAI: AUKERAK ETA ESPERIENZIAK

---

Mahai-inguru formatuan bi adituk hartu dute parte. **Xabier Murua**, Osoigoko sortzailea eta administrazio publikora zuzendutako proiektuen zuzendaria; eta **Erika Jaráiz Gulías** Santiagoko Unibertsitateko Zientzia Politikoa eta Soziologia Saileko irakasle titularra eta Ikerketa Politikoen Taldeko kidea.

Honako galderak ardaztu dute bi adituen hitzartzea:

- Zer nolako kanalak eta prozesuak ezagutzen dira.
- Nor dago eta nor ez dago
- Zer irabazi eta galtzen da parte hartzeko modu tradizionalen aldean
  - Zer partehartze kultura sustatzen da
- Bideak. Kanal berri hauetan ere jakin (informazioaren kalitatea, sesgoak, emaitzen interpretazioa...).
- Partehartze demokratiko eta kalitatezko baten indikatzaileak kanal digitaletan.
- Zer ekarpen egiten diote eta egin ahal diote kultur demokratikoa sendotzeari erraminta digital berriek.
- Nola lagundu dezake parte-hartze eskubidea bermatzen.

Erika Jaraizek "Hiritar laborategi digitalak" metodologia aurkeztu du, herritarren esperientziei lotutako politika publikoak modu parte-hartzailean eraikitze metodologia. Laborategi hauek elkarrekin politikak sortzeko hainbat eragile bilduta gizarte-erronkak interpretatzeko gune birtualak dira. Laborategi hauetako berrikuntza nabarmenetako bat esperientzia denbora errealean kontatzen dela da, baliabide teknologikoen bidez, eta, beraz, esperientziaren denborari dagokion karga kognitiboa eta afektiboa ematen du.

Xabier Muruak aldiz egiteko modu tradizionalen aurrean aldaketaren beharra nabarmendu du, demokraziaren ikuspegitik parte hartzeak hartu behar duen lekua nabarmendu eta teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabide berriak eta esperientzia berriak ekarri ditu. Parte hartzeak elkar topatzeko espazioak eta dinamikak behar ditu, aurrez-aurrekoak edo digitalak izan. Horretarako hiru gako nabarmendu ditu: borondate instituzionala, autoritatea edo boterea partekatzea eta ausardia eta lidergoa. Espazio digitalen gabeziak eta hauen ekarpenak aletu eta zenbait esperientzia partekatu ditu.

Eranskinean jasotzen dira bi adituen ponentziak. [Ikus Eranskina 2.](#)

Adituen hitzartzearen ondoren solasaldirako tarte bat ireki da, galderak eta partehartzaileen hausnarketak partekatzeko.

## PONENTZIA. TRESNA DIGITALAK: KOMUNITATEA SORTZEN ETA SENDOTZEN

**Santi Pisonero** adituari egokitu zaio goizeko bigarren zatiko edukien inguruan ponentzia bat egitea. Santi Pisonero teknologian espezializatutako soziologoa da. Ikerketa, entzute eta parte-hartze prozesu handien metodologia eta analisiaren arduraduna da PR4en.

Santi Pisoneroren ponentziak honako ideia nagusiak izan ditu ardatz:

- Erraminta digitalak, komunitatea sortzen eta sendotzen
- "Parte izan" horretan nola lagundu ahal diote erraminta digitalek
- *Nola egin ahal dio ekarpena parte hartze eskubidearen jardunari*
- Administrazioak, nola baliatzen ditu eta nola baliatu ditzake
- Esperientziak

Marko horri erantzunez, Santi Pisonerok komunitate bat definitzen duten elementuak aletzen hasi du bere hitzartzea, komunitate digital bat izango litzatekeena ere definitzeko, elementu horiek jasotzen dituzten esperientziak adibide gisa ekarriz: interes komunak, balioak, konexioa eta partekatuko dena; baita komunitate-teknologia deitu duenaren definizioa ere. Azalpenean zehar, *parte izatearen* zer den identifikatzeko aurkitzen ditugun paradoxak azaldu ditu. Azkenik, mahai gainean jarri du eta eztabaidarako ireki du erronka berriei aurre egingo dien parte-hartze berri baten beharra (digitala ere bai), batez ere "gauza publikoaren" ikuspegitik.

*(Ikus eranskina3)*

Ponentziaren ondoren parte hartzaileak bost minutu hartu dituzte banaka Menti bidez honako ariketa egiteko: Jaso esaldi batean interesgarriena/garrantzitsuena iruditu zaizuna. Honako 30 esaldiak jaso dira.

Confianza	Parte hartze digitalak ez du ezer inbidiatzeko fisikotik. Blak uztartuta indartsuagoak gara!	Partaidetza, zertarako?
La mayor innovación es crear espacios para el dialogo y la conexión	El uso de las redes, los grupos de edad y los resultados que pueden obtenerse	Hari asko lotu gabe daude oraindik eta aldaketa digitala oso bizkor dator
Diferentes ritmos entre la tecnología, la ciudadanía y la administración	Haztapenaren garrantzia	La participación digital vs analítica. Ambas tienen sus propiedades y defectos.
Erraminta egokia aukeratzearen garrantzia, diseinuaren garrantzia	Erakundeak ausartu behar dira teknologi berriak ezartzen	Nola sustatu parte hartze espontaneo espazio digitalek?
Erronka zehaztutakotan zehaztu behar direla tresnak, eta diseinu txar batek emaitzak desitxuratu ditzakeela.	Blak dira beharrezkoak.	Parte hartze aukerak asko handitzen dira teknologia digitalak erabiliz
Ez dago miraririk. Digitala batzuetan presentziala besteetan bakoitza muturreraino neurtuz	Cocrear la ciudadanía y la Administración Pública	Komunitatea eratzeko modu desberdinak asmatu behar ditugu



JAKIN: PARTAIDETZA-ON  
**MEMORIA** (2023/03/24. OKENDO KULTUR ETXEA, DONOSTIA)

Aurrez aurre edo online erantzuteko modu desberdinak, egia esateko edo emozionalitate maila desberdinaren eragina kontuan izan beharra.

La importancia de la cocreación y la utilización de metodologías concretas para ello

Arrisku bezala ikustetik, derrigorrez lanketa sakona egin beharra eskatzen duela partaidetza digitalak

Partaidetza digitala lehen momentutik kontuan izan

Parte hartze tresna digitalen garrantzia

Alderdi batzuen jarraitzaile kopuru eskasa Parte hartzea 2 esparrutik sustatu behar dela baleztatzen du gaurko saioak (analogiko/digitala)

No se puede hablar de "nueva" participación en el ámbito institucional para referirse a un modelo que incluya participación digital y presencial s

Komunitate berrietara iristeko eta halen parte hartzea bermatzeko teknologia digitalak erabiltzea ezinbestekoa da

Administrazioa oso berde dago eremu honetan

Sin metodologia la participación es ineficaz

La presentación del último ponente. Debería escribirlo para poder estudiarlo

Cómo sentirse parte implicada y corresponsable si al final se decide analógicamente?

Menti bidezko ariketaren ondoren bertako esaldiak eta bertaratuek ekarritako beste galdera edo gogoetarako tarte laburra ireki da.



## PLENARIOA: HITZ BATEAN

---

Parte hartzaile guztiei, aurrez aurre zein online zeudenei, Menti bidez honako galdera erantzutea eskatu zaie: Politika publikoetan herritarren partaidetza sustatzeko gaur entzundakotik zer azpimarratu nahi duzu?



Hitz hauek guztiak Inteligentzia Artifizialeko aplikazio batean sartu eta collage batean irudikatzeko eskatu zaio. Irudi hauek izan dira ariketa kolektibo eta erraminta digital berrien eskutik saioaren emaitza irudi batean izan zitekeena.



## ONDORIO NAGUSIAK ETA ITXIERA

---

Amaieran, Olatz Dañobeitiak, GFAko Herritar Partaidetza zuzendaritzako teknikariak jardunaldiaren hiru saioek osatu duten ibilbidea eta hauetan ikasitakoak ekarri ditu labur. Saio bakoitzean landu eta mahai gaineratutako kezka zein etxeko-lanak aletu eta eskerrak eman dizkie hiru saioetan parte hartu duten pertsona guztiei.

*(Ikus Eranskina 4)*